



Ararteko Erakundea gure artean berria bada ere, laugarren urtea betetzear bait dago, ospe eta tradizio handiaren jabe diren antzeko erakundeetan oinarriturik sortu da. Suedian eman zitzaion hasiera tradizio honi OMBUDSMAN izenez. Gaur egun, nahiko hedatua dago munduan zehar, toki bakoitzeko Konstituzio eta Esiatutoen arabera.

Ararteko Erakundea, otsailaren 27ko 3/1985 Legez sortu eta araupe-tu zen eta bertako arduraduna Eusko Legebiltzarraren 1989ko martxoaren 2ko erabakiz izendatu zen.

Lege honek, hirikideek administratza ona izateko duten eskubidea eta legezko oinarri-irizpidearen berma zelintzen duen erakundetzat jotzen du Arartekoa. Beraz, Arartekoaren xede edo eginkizun nagusia, Euskal Komunitate Autonomoko Administrazio Publikoaren eta berauen agindupean dauden bestelako Erakundeen agente eta boterearen gehiegikeria eta utzi-heriaren aurrean herritarren giza eskubideak babestea da.

Arartekoa aurrera eramango dituen ekintza guztiak dohan izango dira, horrela, KEXA AURKEZTEA EZ DA DIRURIK KOSTAKO, eta horretarako ez da legegizon edo prokuradore bitartekotza beharrik izango. Ez da zergaseilu edo polizarik behar, ezta formula berezirik ere. Idazkia, euska-

raz nahiz gaztelaniaz idatz daiteke eta kexak, nahiz AHOZ eta nahiz IDATZIZ aurkeztu. Beharrezkoa da idazkian dagokionaren izen-deiturak, Nortasun Agiri Nazionalaren zenbakia, helbidea eta telefono zenbakia adieraztea.

Arartekoak ezin ditzake bideratzeko onartu ondorengo kasuok: Epai-tuak izan diren auzi-gaiak. Dagokion Administrazioari aurrez kexa hori ez bazaio aurkeztu. Sinatu gabeko kexak. Auzi-gaia epaitegiak erabakia eman zain baldin badago. Kexa aurkeztu duenak, Arartekoarengana jo ondoren, epaitegien aurrean jazarpena edo errekurtsioa aurkezten badu.

Arartekoaren esku-hartzea Administrazioaren ekintzetara muga-

tzen denez, norbanakoen alorreko gaiak edo gai pribatuak ez dira onartuko.

Azken kasuetan, kexa aurkezten duenak abokatu edo prokuradoreengana jo beharko du, edo horretarako dirurik ez izanez gero, dagokion lurraldeko Abokatuaren Elkarteak izendatuko duen Ofiziozko Abokatu eskatu behar du.

Garbi gera bedi, beraz, edozein kexa edo salaketa egin daitekela baina hori, beti ere, Administrazioarekin izandako arazoren bati buruzkoa baldin bada.

*Becerro Bengoa kalea  
01005 Vitoria-Gasteiz  
Telf.: 945/ 13 51 18  
Fax: 945/ 13 51 02*



Juan San Martín Ortiz de Zárate (Arartekoa).